XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

1574

AGINDUA, 2013ko martxoaren 14koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan bidaiariak herri artean errepidez garraiatzeko erabilera orokorreko zerbitzu publikoetako tarifak eta gutxienez ordaindu beharrekoak gehitzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoan bidaiariak herri artean errepidez garraiatzeko erabilera orokorreko zerbitzu publikoetan kobratu beharreko tarifak osatzen dituzten zenbait elementuren prezioa igo egin da. Hori dela-eta, arloko elkarte batzuek horrela eskatu dutenez, bidezko da indarrean dauden tarifak igotzea.

Igoera orokorra kalkulatzeko, Errepideko Bidaiari Garraioaren martxoaren 18ko 4/2004 Legearen 48.6 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da; artikulu horren arabera, erabilera orokorreko zerbitzu publiko erregular iraunkorretan, Administrazioak tarifak berrikusteko arau batzuk ezar ditzake, eta arau horiek faktore objektiboak ez ezik, emakida bakoitzaren produktibitatea ere kontuan hartuko dute. Errepideko Bidaiari Garraioaren Arautegia onartzen duen apirilaren 3ko 51/2012 Dekretuko 7.3 artikuluan ezarri dira aipatu arauak; beraz, arauok aplikagarriak dira, zertarako-eta bidaiariak herri artean errepidez garraiatzeko erabilera orokorreko zerbitzu publikoetako tarifak oro har berraztertzeko.

Gutxienez ordaindu beharrekoa kalkulatzeko, 51/2012 Dekretuko 7.3 artikuluko arauak aplikatu baino lehen, eguneratu egin da gutxienez kontratu beharreko hori, garraioarentzako BEZaren zerga-tasak izan duen eguneratzearekiko proportzioan; hartarako, hain justu ere Lehiakortasuna sustatu eta aurrekontu-egonkortasuna bermatzeari buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-Dekretuko 23. artikulua baliatua da; eta, hala, 2012ko irailaren 1etik aitzineko ondorioekin, bidaiari garraioaren zerga-tasa % 8tik % 10era pasa zen (Aipatu lege-dekretuaren bitartez, Balio Erantsiaren Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu zen).

Bestetik, emakiden artean dauden ezberdintasun nabarmenengatik, batez besteko igoera orokor hori arlo guztian uniformea ez denez, hala eskatzen duten enpresei tarifak banaka berrikusteko aukera emango zaie.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren sailak sortu, kendu eta aldatzeari eta sailon funtzioak eta jarduera-eremuak zehazteari buruzko Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak eman didan eskumena baliatuaz, eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuko 4. artikuluarekin eta martxoaren 18ko 4/2004 Legeko 4.1 eta 48. artikuluekin bat etorriaz, honako hau,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Emakida-erregimenean, bidaiariak herri artean errepidez garraiatzeko erabilera orokorreko zerbitzu publiko iraunkorretako tarifak oro har berraztertzea, honako arau hauek aplikatuaz burutuko da: Errepideko Bidaiari Garraioaren martxoaren 18ko 4/2004 Legearen 48.6 artikuluan aurreikusitakoak (Errepideko Bidaiari Garraioaren Arautegia onartzeari buruzko apirilaren 3ko 51/2012 Dekretuko 7.3 artikuluan garatu ziren aipatu arauak).

2. artikulua.– Bidaiariak herri arteko errepidez garraiatzeko erabilera orokorreko zerbitzu publiko erregularretarako baimena duten enpresek, beren emakida guztien tarifen banakako berrikuspe-

na eskatu ahal izango dute. Horretarako, eskabide arrazoitua aurkeztu beharko dute enpresek, kasuan kasuko foru aldundian garraioen arloko eskumena duen organoan; eskabide horretan, enpresa-kostuak sortarazten dituzten gorabehera ekonomikoen multzoa adierazi beharko dute, eta erabilera orokorreko zerbitzu erregularren diru-sarrerak eta gastuak zehaztu beharko dituzte. Organo horiek, hala behar izanez gero, enpresak aurkeztutako informazioa egiaztatu ahal izateko beharrezko peritu-frogak egitea agindu ahal izango dute, eta horren kostuak eskatzailearen kontura izango dira. Dena dela, administrazioak esango du nork egin behar dituen azterketa eta egiaztapen horiek, eta administrazioak berak zuzenduko ditu.

3. artikulua.– Tarifen banakako berrazterketa aukeratzen duten enpresek honelaxe emendatu ahal izango dituzte tarifak: dagokien emakidaren azterketa ekonomikotik ateratako formula polinomikoaren arabera hain justu ere. Formula polinomiko hori bera izango da hortik aurrera emakida eguneratzeko erabili beharko den formula, eta ezin izango dute batez besteko formula polinomikorik erabili, ez eta tarifen igoera orokorra ezarri ere.

4. artikulua.– Kasuan kasuko formula polinomikoen gaineko banakako berrazterketa egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, sektore horretan izandako batezbesteko igoera indizeak erabiliko dira, eta, hortaz, ezin izango dira partikularretan egiten diren gehikuntzak aplikatu.

5. artikulua.– Emakidaren kostu-egituraren azterketaren ondorioz, enpresaren kudeaketa, txarra dela ikusiz gero, Administrazioak ukatu ahal izango dizkio eskatutako igoerak, erabat edo zati batean.

6. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoan, bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu publiko erregularretan gutxienez 1,32 euro ordaindu beharko da.

7. artikulua.– Eskualde bereko hainbat linea erregularretarako emakidak dituzten enpresek edo, linea bakarrerako emakida izanik, eskualde oso bat hartzen dutenek txartel kopurua gutxitu eta abonuak eskaini ahal izango dituzte, bezeroei zerbitzu hobea eskaintzearren.

Kasuan kasuko foru aldundiko organo eskudunari aurkeztu beharko zaio tarifak igotzeko proposamena, eta horrek, ateratzen diren prezioak onartu ahal izango ditu, baldin eta 1. artikuluan ezarritako batez besteko igoera gainditzen ez badute.

Batez besteko igoera hori lortzeko, batzen den diru guztiarekiko txartel mota bakoitza zenbatekoa den neurtuko da.

8. artikulua.– Adierazitako igoera horien ondorioz ateratzen diren prezioak, borobildu egingo dira, goitik nahiz behetik, bost zentimo baino gutxiagoko euroren zatikirik atera ez dadin, betiere gutxieneko ordainketari dagokionez, zeina 6. artikuluan finkatzen den.

9. artikulua.– Aurreko artikuluetan ezarritakoaren ondorioz, linea baten edo zenbait ibilbideren barruan, prezioei zeroko eta hortik beherako gehikuntza egokitzen bazaie, euroaren bost zentimotan gehitu ahal izango dira haiek.

10. artikulua.– Gauez, hots, 23:00etatik eta 06:00etara bitartean eta emakidaren ordutegitik kanpora egindako zerbitzuetan, bidaia-txartelaren prezioa % 50 gehitu ahal izango da.

11. artikulua.– Zerbitzuetan, erabiltzaileen leialtasuna saritzeko, deskontudun bidaia-tituluak ezartzen badira, agindu honen ondoriozko bidaia-txartel arruntei ezarri beharreko prezioa % 30 igo ahal izango du aginpidea duen foru aldundiak.

12. artikulua.– Garraio-txartela autobusean bertan erosten bada, erabiltzaileak eskubidea izango du 20 eurora arteko kanbioak jasotzeko, 10. artikuluan aipatutako gaueko zerbitzuetan izan ezik; horretarako, foru aldundiek bestelako ordainketa-sistema batzuk ezarri ahal izango dituzte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Euskal Autonomia Erkidegoan, bidaiariak herri artean errepidez garraiatzeko erabilera orokorreko zerbitzu publikoetako tarifak eta gutxienez ordaindu beharrekoak gehitzeko Agindua, hau da, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak 2012ko martxoaren 13an emandako Agindua Indarrik gabe gelditzen, eta, halaber, agindu honen aurka doan ezein xedapen.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ahala ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Garraioetako zuzendariari agindu hau eta aplikatu beharreko gainerako arauak interpretatzerakoan sortzen diren auziei buruzko erabakiak hartzeko.

Bigarrena.– Lege hau sartuko da indarrean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 14a.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.